
2040 urtea, iguripenen jomugan

Kasares, Paula

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
paula.kasares@unavarra.es

E

Euskarazko hiztunak gogoetagai harturik, aurreikuspen bat egin da: egungo gaztetxoak hemendik hiru hamarralditara, 2040 urte aldera, heldu eleaniztunak izanen dira. Zertan egonen da egungo gaztetxoek etorkizunean euskara hautatzea? Gogoeta horretan ondorio garbiak baino gehiago galdekizunak agertu dira, euskararen gizarte balioari eta euskaraz era daitezkeen identitateei dagozkienak. Oraingo gaztetxoen biharko hizkuntza hautuak elikatzeke euskararen bizipen subjektiboak sendotzea proposatu da, batik bat kulturgintza eta teknologia arloen bidez, betiere haurrak hizkuntzaren **jaraunsleak** baino gehiago hizkuntzaren **birsortzaileak** eta haren etorkizunaren **eratzailak** direla onarturik.

Giltza-hitzak: Euskara. Hizkuntza gutxiagotuak. Hizkuntza sozializazioa. Eleaniztasuna. Hizkuntza hautuak. Kulturgintza.

Euskaraz garatu nahi duen komunitatean soa eta asmoa jartzeko eta dauden indarrak nabarmenduz eta balioan paratuz, 2040 urterako irudika litekeen kapital (edo aktibo) sortari itxura emateko ariketa eskatu zitzaidan.

Historian kinka zailetatik bizirik atera eta gaurdaino iraun duen hizkuntza dugu euskara, denboran luze gizatalde baten adierazpidea eta identitate ezaugarria izan dena eta egun ere badena. Haatik, hurren bizpahiru hamarkadetek euskarari ekarriko diotena igartzea eta euskaraz garatu nahi duen gizataldeak aitzinean izanen dituen erronka-aukerak irudikatzea zail gertatzen da.

Gizarte konplexuan bizi gara eta komunikatiboki inoiz baino askotarikoak dira gure eguneroko hizkuntza jardunak. Globalizazioak eta teknologiek mintzairaren arteko muga fisikoak zirenak gesaldu edo birrindu dituzte eta egun, etxetik mugitu gabe ere, arrunt eskura (begi-belarrira, hobeki erranda) ditugu milaka kilometrora dauden gizataldeetan mintzatzen diren hizkuntzak eta mintzaira horien produktuak (musika, telebista, filmak, berriak eta edozein gairen gaineko informazioa). Areago ere, gutako bakoitzak sakelari darama kontsumitzen ohi ditugun hizkuntzako produktu horietarako aukera zuzena ematen dion gailua. Hori horrela, hondar hamarraldietan euskarazko aukerak nabarmen berretu badira

ere, egungo hizkuntzen eskaintza ugariaren oihanean, euskara urritu eta ttipiagotu zaigula irudia dut.

Hori da gaurko errealitatea eta testuinguru horretan nire gogoetak euskarazko hiztunak, egungoak eta etorkizunekoak, hartuko ditu hausnartzeko gai eta ardatz; hiztun berriak izatean baitakusat euskaraz garatu nahi duen komunitatearen haztegia eta mintzaira geroratzeko bermea. Gogoeta horretan ondorio garbiak baino gehiago galdekizunak agertu zaizkit, euskararen gizarte balioa eta euskaraz era daitezkeen identitateak jotzen dutenak.

1. Egungo eta biharko hiztunak, nolakoak

Egungo gaztetxoak hemendik bizpahiru hamarralditara, 2040 urte aldera, heldu eleaniztunak izanen dira. Batzuek euskaraz jakinen dute, ez guztiek ordea. Horretan aldeak ditugu euskal lurraldeen artean. EAEn haur-gaztetxoen euskarazko gaitasuna gutxi gorabeherako ezagutza unibertsalera (eskolak bermatzen duen horretara behinik behin) hurreratzen ari da. Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, haurren belaunaldien gehiengoa hezkuntza sistemak eman dezakeen euskararen ezagutzarik gabe ere hazten da¹. Direnak direla, euskaraz dakiten gazteek bertze mintzaira batzuk ere (gaztelania, frantsesa, ingelesa... gutxienez) jakinen dituzte –aski ongi gainera– eta agian, batzuk ingurukoa ez den hizkuntzaren batean ere (alemanez, txineraz...) ongi edo hala moduz ihardukitzeko gauza izanen dira.

Eleaniztasun orokortuko egoera horretan, eta aintzat izanda euskara ez dela egungo gazte euskaldun gehienek erosen egiten duten hizkuntza², ez da aise aurreikustekoa etorkizunean euskara beren ohiko harremanetarako baliatuko ote duten, dibertimendu nahiz informazio egarri dabiltzalarik euskarara joko ote duten, edo aitamatzen direlarik, familia harremanak euskaraz zurkaiztuko ote dituzten.

Mintzaira anitzetan ongi moldatzeko gai diren hiztun eleaniztunak izanen baitira, honela planteatu beharko genuke: oraingo gazteek handitan euskaraz egiten dute hala **nahi** badute, bertze hizkuntza batzuetan egiteko aukera izanda ere euskaraz egin **nahiago** badute, euskara **hautatzen** badute. Hautuaren ideia funtsezkoa da euskara bezalako mintzaira ttipiendako. Izan ere, hainbat egile irizkide agertu dira hizkuntza eta kultura gutxituen iraupenaren gibelean hiztun norbanakoen hautuak ikustean (Burke, 1987; Fasold, 1995; Fishman, 1997).

2. Hizkuntza hautuak

Zertan egonen da egungo haur-gazteek hemendik 25 urtera euskara hautatzea? Gizartearen zer alderdik jokatzeko du horretan? Zerk bulka lezake hautu hori?

Galdera hizkuntza portaeren eta identitateen dimentsio politikoari eta ekonomikoari doakie. Galdemodu horren bidez, gizarte, politika eta ekonomia inguruabarrek norbanakoen hizkuntza elkarrekintzei dakarzkieten eraginen esparruan sartzen gara. Horren inguruan Soziologiak eman du eredurik osoenetako bat: Pierre Bourdieu (1989) egilearena, hizkuntzen maila mikrosoziologikoa (hiztunen bizipen subjektiboarena) eta maila makrosoziologikoa (gizarte bizitza baldintzatzen duten eragingarri eta prozesu handiena) harremanetan jartzen dituena.

Bourdieuaren kontzeptuen bidez formulatuta, gaurko gazteek euskara hautatzeko gako nagusia honako hau izanen litzateke: gaur eta hemen euskaraz hizkuntza erabileren azokan zer nolako hizkuntza kapitala da? Nola estekatzen dira identitateak eta arlo ekonomikoko nahiz sinbolikoko baliabideen eta boterearen ekoizpena, zirkulazioa eta banaketa? Hori argitzeak gure kasuan honako hau azaleratzea ekarriko luke, hiztunek beren bizitzarako eta harremanetarako zer dela-eta hautatzen duten euskaraz edo erdararen batez baliatzea, eta nola iristen diren hizkuntza bat edo bertzea beretakotzera?

Hori da, nire ustez, euskararen jarraipenerako funtsezko galdera, euskaraz duen gizarte balioari eta euskararen bidez era daitezkeen identitateei zuzen-zuzenean dagokiena.

3. Hizkuntza hautuak elikatzea

Azken hamarkadetan anitz egin da euskararen maila makroan: hizkuntzaren estatusetan, hizkuntzaren inguruko erakundetzan (administrazioan, irakaskuntzan...), euskararen aldeko gizarte saretzean (euskaingintzan), hedabideetan, hizkuntza industrietan... Horrek guztiak euskaraz jabetzeko eta gizartearen hainbat alorretan erabiltzeko aukera berriak sortu eta zabaldu ditu. Euskararako gizarte aukerak ezinbestekoak dira, hizkuntza gizartearen erabiliko bada. Halaz guztiz, gizarte erakundeetan euskaraz egin duen bidea begi bistakoak badira ere, oraindik egiteko anitz dago: hizkuntzaren estatusa Iparraldean eta Nafarroan, euskaraz dituen gabeziak erakundeetan eta gizarte zerbitzuetan...

Orain, aldiz, premia euskara maila mikrosoziologikoan (hiztunen bizipen subjektiboetan) sendotzea delakoan nago; hau da, euskara gauza ttipien munduan errotzea: tokiko eta eguneroko bizimolde arruntetan, ohiko eta hurbileko harreman xehe-xaloetan, zaintzako eta maitasunezko giza igurtzietan edota gogo-izpiritua kilikatzen, larruazala zirraratzen eta irudimena atximurkatzen duten bizipenetan.

Nola erabili lehenak (euskararako dauden gizarte aukerak) bigarreni (hiztunen bizipen subjektiboak) eragiteko? Horretarako baldintza makrosoziolinguistikoak egonda, nola lerrarazi hiztunen hizkuntza hautuak euskararen aldera? Nola elikatu gaur berean gure gazteen biharko euskararako hautuak?

Bi bide jotzen ditut horretarako bereziki ernagarri: kultura eta teknologia. Kulturgintzan edozein bizipen estetiko dakarren sormenezko adierazpidea: musika, zinema, literatura, antzerkia... Teknologian, hizkuntza bidezko ohiko harremanak baldintzatzen dituzten gizarte-sareak.

4. Gazteak, euskararen birsortzaileak

Gazteen hizkuntza hautua kezka bide harturik, euskara ondorengoenganatzeaz eta belaunaldi berriei emateaz gure artean indarrean izan diren ideiei aipamena egin beharrean nago.

Euskararen belaunetaz belaunetako jarraipenaren gainean gurean oraintsu artio jokatu duen transmisioaren paradigmak haur-gazteak hizkuntza transmisioaren hartzaile edo jasotzailetzat jotzen zituen. Baina haurrek ez dute hizkuntza **jasotzen**, mintzaira **beretzen** baizik. Neska-mutikoak ez dira euskara den kultura ondare horren **jaraunsleak**, mintzairaren **birsortzaileak** eta hizkuntzaren historiaren **eratzzaileak** baizik. Euskararen jarraipena oraingo gurasoen jokaeraren arabera ez ezik gaurko neska-mutikoen **hautuzkoa** ere bada (Kasares, 2014).

Hala bada, gehienbat eskolan euskaldundu diren eta erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten haur-gaztetxoei euskaraz hazteko eta gizarteratzeko ahal den aukera gehien ematea berebiziko da, baina beraiek beretakotu beharko dute euskara. Azken finean, hizkuntzak segituko badu, belaunaldi bakoitzak euskara atxikitzeke hautua hartu beharko du.

Kezka horrek egungo haur-gaztetxo eleaniztunak euskaldun bilakatzeko baldintzei begiratzera garamatza nahitaez. Egungo neska-mutikoen euskarazko sozializazio baldintzak ahalik eta onenak, askotarikoak, trinkoenak izatea dugu erronka, euskararekin harreman sakona eta atsegina, gozamenezkoa eta asebetegarria izan dezaten. Bertze hizkuntzak jakinik ere euskara bere jo eta **hauta** dezaten.

Euskara errazago hautatuko dute euskaraz eroso ari badira, euskarak haien komunikazio beharrak betetzeko balio badie, euskarak bertze hizkuntzek ematen ez dien zerbait ematen badie, edo Jon Sarasuaren hitzetan (2013), haiendako euskarak bertze mintzairaren aldean **balio erantsia** badu eta bertze hizkuntzek biziartzen ez dietena biziartzen diela sentitzen badute.

Bibliografia

- Bourdieu, P. (1982/1989). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. France: Fayard.
- Burke, P. (1980/1987). *Sociología e historia*. Madrid: Alianza.
- Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*. Txosten argitaragabea.
- Fasold, R. (1984/1995). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- Fishman, J. A. (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.

Oharrak

1. 2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoak darakutsanez, EAEn gazteen (16 eta 24 urte bitartekoen) % 71,4k daki ongi euskaraz, Nafarroan % 25,8k eta Iparraldean % 18,9k.
2. 2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, gazte (16-24 urte bitarteko) euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren gaineko datu hauek ditugu 2016an: EAEn gazte euskaldunen % 25,3 moldatzen da euskaraz hobeki gaztelaniaz baino, % 19 bi hizkuntzetan antzera eta % 55,7 gaztelaniaz hobeki euskaraz baino. Nafarroan gazte euskaldunen % 16,9 erosoago aritzen da euskaraz gaztelaniaz baino, % 20,6 bietan berdintsu eta % 62,6 gaztelaniaz erosoago euskaraz baino. Iparraldean gazte euskaldunen % 8,8k baizik ez du aiseago egiten euskaraz frantsesez baino, % 27,1ek bietan iruditsu eta gainerakoek, % 64,1ek, frantsesez aiseago egiten du euskaraz baino.